

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Arratzu



Aurkibidea

Udalerria: Arratzu

Sarrera



Arratzu Bizkaiko barnealdean dagoen udalerria da, Busturialdeko eskualdean. Gernika-Lumo, Ajangiz, Kortezubi, Nabarniz eta Mendata ditu mugakide. Herritarren %95a baino gehiago euskaldunak dira gaur egun. Herria Loiola eta Belendiz auzo nagusien artean banatzen da bereziki. Hauek dira gainerako auzoak: Barroeta, Barruti, Eleizalde, Gorozika, Loiola, Monte, Uarka, Zabala-Belendiz, Zubiate. Mendebaldeko euskararen barruan Busturialdeko euskararen barruan kokatzen da arratzuarren hizkera. Euskal hiztunen portzentaje esanguratsua dela-eta UEMAko (Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea) kidea da.

Argazkia: Euskalduna

- **Biztanleak:** 340
- **Euskaldunak:** %90,3

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **5**
- Zintak: **6**
- Pasarteak: **50**
- Transkribatutakoak: **2**
- Audioak: **0**
- Bideoak: **50**

Proiektuak

- Diasporako Ahotsak
- Euskal Herriko Ahotsak
- Tximintx euskara elkarteak
- Zornotzako Urritxe institutuko ikasleen grabazioak

Hizlariak

Juanita Bilbao Olabarriaga (1923-2014)



1923an jaio zen Arratzuko Elizaldeko Urtubi baserrian. Gurasoak mendatarrak zituen, soinu-jotzaileak. Bederatzi neba-arrebatatik zazpigarrena da bera. Arratzuko eskolara joan zen Gernikako bonbardaketa arte; gerra ostean ez zen eskolara bueltatu. Eskolak gaztelaniaz jaso zituen, baina dotrina euskaraz. Gerora, 19 urtera arte bera aritu zen herriko neska-mutilei dotrina irakasten. Gerra sasoiari bi neba izan zituen frontean, eta eurentako batek auzotarren salaketa baten ondorioz hiru urte pasatu zituen preso Bilboko eskolapioetan. 29 urteagaz Belendiz auzoko "Jose Torre" gaz ezkondu ostean bertara joan zen bizitzera. Etxe hori taberna zenez, bertan aritu izan zen beharrean senarrak erretiroa hartu zuen arte.

Javier Gomeza Arrozpide (1929)



Arratzuko Belendiz auzokoa, ama Forukoa zuen eta aita arratzuarra. Baserrian bizi ziren. Lau senidetan hirugarrena da Javier. Baserriko lanetan ibili zen eta zerrategi batean ibili zen lanean, 26 urterekin Ameriketara joatea erabaki zuen arte. Nyssara (Oregon) joan zen eta urtebete egin zuen ardi-lanetan. Ondoren, jabe beraren beste arrantxo batera joan zen, behiekin lana egitera; esnetegi bat zen eta 100 ardi jezten zituen egunean bitan (makinekin). Hogei urtean egin zuen lana han. 1958an bere anaia Jose Antonio ere Ameriketara joan zen ("Tony" bertan geratu zen bizitzen hura ere, Boisen). 1960an mexikar batekin ezkondu zen eta lau seme-alaba izan zituzten. Behin bakarrik joan da Euskal Herrira bisitan (hilabetez egon zen bertan, 1974an). Ontarion bizi da (Oregon). 2005ean arrantxoa ipini zuen, Nicolas ilobarekin (N.J. Gomeza).

Rosario Irazabal Zarrabe (1939)

Belendiz auzoko Barrueta baserrian jaio zen 1939ko maiatzaren 10ean. Gurasoei baserriko lanetan lagundu eta hamalau urtera arte ikasi zuen bertako eskolan eta 15-16 urterekin josten hasi zen. Bilbon "Corte y confección" egin zuen jostun titulua lortuz eta ordutik jostun moduan egin izan du lan. 23 urterekin ezkondu eta Zornotzara etorri zen bizitzera. Bere familia osatu eta bertan geratu izan da bizitzen.

Romana Monasterio Zarrabeitia (1922-2017)



Belendizeko Motxobe baserrian jaio zen, nahiz eta gero Loretene baserrian bizi. Aita Errigoitiko Legarreta etxekoa zuen eta ama Motxobekoa bertakoa. Lau neba-arreba izan ziren, bera bigarrena. Zazpi urterekin hasi zen Belendizeko eskolan eta 13 urterekin bere maistraren etxera joan zen urtebetez umeak jagotera, Gernikako San Juan Ibarrera. Erreneria auzoko Potxorretanean ikasi zuen josten eta Anton jostunarekin prakak egiten. Orbe eta Cervera jostunentzako prakagin aritu zen erretiratu arte. 1955ean Gernika-Lumora ezkondu zen Lumoko senarrarekin eta bi alaba izan zituzten.

Pili Otazua Elordieta (1934-2022)



Arratzuko Zubieta auzoko Zubieta etxean jaio zen zortzi neba-arrebadun familia batean. Ama bertakoa zuen eta aita Arrietakoa. Sekula ez zen eskolara joan gerraostean joatea egokitu zitzaiolako; hori dela-eta, etxeko izekoak irakatsi zion guztia. 14 urte gaz Gernikako Olibarestarren etxera joan zen umezain. 18rekin Bilboko San Frantziskora joan zen ile-apaintzaile ogibidea ikastera eta urte askoan ibili zen lanbide horretan. Bilbon ezagutu zuen Sondikako senargaia, eta ezkondu ezkerotik Sondikan bizi izan da. Txorierriko hizkeraren ukitua nabari zaio berbaeran.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

1. Aisia

1.1. Gaztetako parrandak

- **Hizlaria(k)**: Irazabal Zarrabe, Rosario
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Estankona, Ane - Lezama , Irati
- **Erref**: ART-005/004
- **Iraupena**: 0:02:09. **Hasi**: 00:02:27. **Bukatu**: 00:04:36
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Lezama , Irati
- **Gaia(k)**:
 - Aisia » Jai-giroa » Auzoko ospakizunak
 - Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
 - Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- **Laburpena**: Gaztetan, astelehenak domekan baino gustukoagoak zituen Gernikara joaten zirelako eta mutilekin dantzan aritzen zirelako. Etxera heltzerakoan, amumaren errieta jasotzen zuten. San Pelaioetan auzokoek komisia antolatzen zuten; behin, oskorri taldea ekarri zuten Udalak emandako diruarekin, baina ez zitzaien dirua heldu eta beraien jarri behar izan zuten beraien poltsikotik. Kontzertu hori zela-eta, abadea haserretu egin zitzairen. "Carrera de cintas" egiten zuten.

Transkripzioa

- Ta gero ba Irati ta honen edadie genkonien Gernikera joaten giñen astelehenetan, ta astelehenetan pasetan giñen Gerniken, oso ondo, oso oso ondo astelehenetan, domeketan baiño asko hobeto.

- Askoz hobeto.

- Askoz hobeto pasetan giñen, ze eitten gendun beraniantiekin ta dantzari. Praka zurixekin ta etorten zien Artiatik eta Busturittik-eta etorten zien holan. Ta gero harekin jantzan eittiarren pieza bat, ba gero miñe kanpoan dogule joaten giñen Belendizerarte, ariñeketan, bide guztixe ta gero etxera aillegetan giñenien amumak ba, “dale que te pego” emoten oskun, ze lelengo aittittek bero-bero eitten eban amuma: “horrek ez deke lotsarik, horrek, horrek umiek ez dogu jakin eduketan ta oin holakoak urten dabe”. Ta gero bera joaten zan ogera ta amuma geratzen zan geuri itxeraitten ta gero amumak emoten oskun “leña”

- Tarie.

- Klaro, tarie emoten oskun. Ria Gabonak eb Maria Angeleseri eta guri be bai. Ta gero San Pelaixoetan ta holan ba ondo pasete giñen, eitte gendun komisiñoa, bueno, gazte guztixek egoten giñen. Ta orduen ekarri gendun urte baten Oskorri, urten barri egoan, baia emon oskuzen /emoskuzen/ aiutamientuek nik ez daitt zemat hamar mille pezeta-edo, orduen pezetak izen zien ta, ez daitt zemat emon oskuezan /emoskuzen/, baia zor ein gendun beste harenbeste. Ta klaro, gazte guztixek ipiñi biher izen gendun falta zana aiutamientuek /emobanetik/ emon ebanetik aparte ba harek pagetako. Ba bai, baia ekarri ein gendun Oskorri ta abadie hasarratu jakun ze ez dakit zelako abestixe eukin eben ta esaten eban “astoak eleizan kantetea”, edo holako zeozer esaten eban abestixek da gero abadie hasarratu ein jakun ha ekartiarren, baiña bueno, guk ekar gendun. Gero eitten gendun “carrera de cintas”. “Carrera de cintas” bordeu eitten doskuezan ta bueno, bien arte edo hiruen arte erregalete gendun bat, ta gero etorten zien mutillek ba kanpotik, Artiatik, Kortezubittik, Forutik bizikletan ta holan ziritxu bet emoten dotseguen, “dzzzi” sartzeko han arotxuen da /ataateben/ ataraten eben ta oniño izeko Ramonik eta nik erregaleniko bat Muxikeko baserri baten dau zinttie gordeta.

2. Familia eta harremanak

2.1. Zornotzako mutilak Gernikara

- **Hizlaria(k):** Irazabal Zarrabe, Rosario
- **Elkarrizketatzailea(k):** Estankona, Ane - Lezama , Irati
- **Erref:** ART-005/005
- **Iraupena:** 0:00:35. **Hasi:** 00:04:36. **Bukatu:** 00:05:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Lezama , Irati
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- **Laburpena:** Senarra Zornotzakoa du eta Zornotzako mutilak Gernikara joaten zirenez dantzara, bertan ezagutu ziren. Gazterik ezkondu zen, 23 urte gaz.

Transkripzioa

- Ta gehixau zer esango dotsuet ba neskak. Gero, gero etor zien aittite ta honek Gernikera ze Zorrontzatik mutillek danak etorten zien Gernikera ez

daitt ze egon zan, danak Gernikera! Ta gero ba aittittegaz hasi nitzen ezkerro, batien hasarratu ta bestien aiskidetu, ba majo baten ibili giñen. Ta gero gazte gaztetan ezkondu be ein giñen ta ezkondu biherrik ta holan ez gendun euki, kontuz, suabe-suabe, baiña ezkondu nitzen ni hogeta hiru urtegaz ta aittittek lau, bos, sei, zazpi, hogeta zazpi urtegaz. Gero etor zien amatxu ta osaba ta gero honek jaboten ein gendun nehikoa.

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Eskola erdaraz, dotrina euskaraz (ART-003/003)

Arratzuko eskolako maistrak erdaldunak ziren eta dena egin behar izan zuten erdaraz, nahiz eta erdararik ikasi ez. Dotrina, ostera, euskaraz jaso zuten. Edade desberdinetako umeak batera egoten ziren.

2. Eskolako liburuak eta jolasak (ART-003/005)

Eskolako liburuak: katoia, "Historia de España"... Katoia lehendabiziko liburua zen. Intxaurrekin, sokadantz... olgetan zuten. Mutilek ez zuten eurekaz batera jolasten, bestelako jolas batzuk zituzten. Lehen ez zegoen frontoirik eta eskola aurrean ibiltzen ziren pilotan mutilak.

3. Kartoizko panpinak eta intxaur-jokoa (ART-003/006)

Ahizpa zaharragoak neskame bezala beharrean zebiltzanez, panpinak izan zituen umetan. Kartoizkoak ziren eta aldatzeko arropak zituzten. Intxaur-jokoa zelan zen azaltzen du.

4. Kangrejotan erre kara (ART-003/007)

Etxean ez zutenez urik erre kara joaten ziren. Arropa zabalekin kaskailuak eta kangrejoak (errekako karramarroak) harrapatzen zituzten. Gerora, gernuak botatzen hasi zirenean, desagertu egin ziren.

5. Arropak garbitu eta lisatu (ART-003/008)

Arropak garbitzeko Txinbo eta Ese xaboiak erabiltzen zituzten. Arropa zuriak beratzen jartzen zituzten. Emakumezkoen beharra zen hori. Arropa lisatzeko lisaburdina (plantxa) desberdinak zeuden.

6. Jostunak; andrak prakakaz (ART-003/009)

Josten ikasi zuen Juanitak; hala ere, baina jostunarengana joaten ziren arropak egiteko. Gernikako zein Bilboko jostunengana joaten zen; arropa dotoreak izaten zituzten. Herriko emakume batzuek Ameriketatik ekarritako prakak jantzi zituztenean, abadeak elizan esandakoak entzun behar izan zituzten. Juanitak mozorro bezala baino ez ditu jantzi prakak.

7. Arropak eta oinetakoak (ART-003/010)

Bernetako ileak mutilei kendutako makinarekin kentzen zituzten. Jai egunetako arropak eta astegunetako ez ziren berdinak. Aitak egindako abarkak ganaduarekin larruagaz egindakoak zirenez, labainak ziren.

8. Permanentea egiteko Gernikara (ART-003/011)

Gernikako ile-apaindegira joaten zen permanentea egiten: Gomezanekora eta "Pipas"enera.

9. Gernikako txurro-denda (ART-003/012)

Gerra aurretik Gernikako txurro-dendan, txurroak txokolateagaz 3 pezeta balio zituen. Bonbardaketa ostean, txabola batean jarri zuten txurro-denda eta 5 pezetara igo zuten eta ez ziren hain sarri joaten.

10. Dotrina erakusten; mezara baraurik (ART-003/015)

19 urtera arte umeei dotrina erakusten aritu zen Arratzuko elizan. Mezara egunero joaten ziren, goizean goizetik. Komulgatzeko bezpera gauetik baraurik joan behar izaten zuten.

11. Doloretako Ama Birjinaren eguna, lehen jaunartzea egiteko eguna (ART-003/016)

Jaunartzea zuriz jantzita egin zuen, baina ez du argazkirik. Ez zuten ezelako ospakizunik egin. Doloretako Ama Birjinaren egunean, Aste Santu aurreko barikuan egiten zuten herriko ume guztiek lehen jaunartzea. Gailetak eta ardo gozoa ematen zuten.

12. Sepultura (ART-003/018)

Etxe bakoitzak bere sepultura zuen elizan. Sepultura zer zen eta zelakoa zen azaltzen du pasarte honetan.

13. Bizikleta eta kamioneta (ART-003/019)

Bere aitag bizikleta hori bat erosi zuen. Berak eta beste batzuek erosi zuten eta Lekeitiorako buelta egin zuten. Mutilek lanera joateko erabiltzen zuten. Gerora kamioneta bat izan zuen aitag nahiz eta gidabaimenik ez izan. Okinak gurdia erabiltzen zuten. Taberna zuen etxera ezkondu zen Juanita eta gero bertan ere ogia saltzen zuten.

14. Lutoa (ART-003/021)

Etxekoren bat hilez gero lutoa eta "medio lutoa" jantzi behar izaten zen. Hildakoari errespetua zor zitzaion. Jaietara edo erromeriara ere ezin zitekeen joan.

15. Gernikako bonbardaketa Arratzutik (ART-003/023)

Gerra hasi zenean, 14 urte egitear zegoen. Gernikako bonbardaketako egunean, etxeok ez ziren joan inora. Karkaba batean ezkutatu ziren. Aireplanoak joan-etorrian zebiltzan, munizioa bukatu eta berriro betetzen joaten baitziren. Beraien auzoko pare bat Gernikan bertan hil ziren. Albo herrietan be bota zituzten bonbak: Arratzuko plazan bonba bat bota eta bertan zeuden ganaduak hil zituzten.

16. Gerraosteko mairuak (ART-003/024)

Gernikako bonbardaketa ostean mairuak zeuden herrian, praka zabalak erabiltzen zituztela nabarmentzen du. Dena egon zen apurtuta, eraikin gutxi batzuk baino ez zuten iraun tente. Mairuen beldur izaten ziren neskatila gazteak, hainbat bortxatu baitzituzten.

17. Frontea Burgo mendian (ART-003/027)

Burgo mendian frontea egon zen eta handik botatako tiroak herritar batzuk harrapatu zituen. Aireplanoak hirunan-hirunan azaltzen ziren. Beraiek harizti batean babesten ziren; beste batzuk, oster, kanposantuko panteoi batean.

18. Gerran ezin labea isiotu (ART-003/029)

Gerra garaian ogi gutxi izan zuten errotak zarratu baitzituzten. Etxeko labatik kea ikusiz gero etxera etor zitezkeen guardia zibilak eta txapan egiten zuten. Hala ere, ez zuten goserik pasa. Herrian zeuden errotak aipatzen ditu. Errotariak eroandako jeneroaren menda hartzen zuen beretzat, ehuneko hamarra.

19. Neba kartzelan (ART-003/032)

Neba bat hiru urtean egon zen Bilboko eskolapioen eta Logroñoeko kartzelan. Baten batek salatuta atxilotu zuten. Bere senarra sei urtetik gora egon zen soldadu.

20. Auzokoak ate atzean entzuten (ART-003/034)

Gerran auzokoekin ere kontuz ibili behar izaten zen. Sarritan etxean ere baxu-baxu egin behar izaten zuten berba atean atzean jendea egoten baitzen entzuten. Auzoan astrapala (zalaparta) itzela egoten ei zen.

21. Gurasoak soinu-jotzaileak ziren (ART-003/037)

Arratzun bertako bat egoten zen soinua jotzen, Jose Taberna. Bere gurasoak ere soinu-jotzaileak ziren: aita soinua eta ama panderoa jotzen zuten. Mendatako Zarrabenta auzoko erromerian jotzen zuten domekero. Mutilek dantzan egin ahal izateko ordaindu egin behar izaten zuten.

22. Gizona Oizen ezagutu zuen (ART-003/038)

Mutilek neskei dantzan egiteko eskatzen zien erromerian. Berak bere senarra Oiz mendiko San Kristobal batzuetan ezagutu zuen. Bederatzi urteren ostean ezkondu ziren, tartean soldadutzan egon zen-eta.

23. Maistrak eta abadea faxista ziren (ART-004/004)

Bere ahizpak eta neba zaharrena eskolara joan ziren, baina bera ez. Maistrak eta abadea faxista hutsak ziren. Bera mezara egunero joaten zen eta abadeak dena erdaraz egiten zuen. Eskolara txapel gorri joan behar zen eta hori falangisten ikurra zenez, etxean ez zioten eskolara joaten uzten. Etxean bertan ikasi zuen irakurtzen eta idazten.

24. Meza eta sepultura (ART-004/005)

Mezara domeketan goizez joaten ziren. Sepultura egiten zenean limosna botatzen zen hilentzako. Domekan arratsaldean dotrina izaten zuten eta honen ostean, elizkizunera derrigor joan behar ziren. Elizara joateko ordu erdi bat ematen zuten, oinez joan behar baitzuten.

25. Alde handia mutil eta nesken artean (ART-004/006)

Neskek bizikleta errekaduak egiteko baino ez zuten erabiltzen. Domeketan neskak diru gabe joaten ziren Gernikara, mutilek, ordea, dirua eramaten zuten. Alde handia zegoen mutilek eta neskek jasotzen zuten tratuan. Neskak etxekoandreak izateko prestatzen ziren. Bera ile-apaintzailea izan zen.

26. Lan eta lan (ART-004/008)

Txikitatik beharrean ibili da, baina zoriontsua zen. Berak sei urte zituela bere neba-arrebak jagoten hasi zen eta soloan lanean. Behin, aitak Lekeitioraino artoa eta garia astoz eraman behar izan zituen errota batera ehotzera; lehen bizitza oso gogorra zen.

27. Zegoena jaten zen (ART-004/009)

Bere baserria oso handia zen eta beti zeukaten zerbait jateko. Batzuetan, errotak itxita zeudenean, ez zegoen ez ogirik, ez talorik; goizez patatak gosaltzen ziren eta bazkaltzeko berriro patatak indabekin. Gurasoentzat gogorra izaten zen, baina umeak edozein jakirekin konformatzen ziren.

28. Isuna (ART-004/010)

Behin ama eta ahizpa nagusia astoz Gernikako plazara joan ziren indabak saltzen eta bidean postuko ugazabarekin topatu ziren. Honek ea nora zihoan galdetu zion amari eta amak plazara zihoala esan zion, eskola hasi berri zegoela eta seme-alabentzako materiala eta abarkak erosi behar zituela. Gizonak 2.000 pezetako isuna jarri zion.

29. Dirua behar zen (ART-004/011)

Arrautzak saltzen ziren azukrea eta ogia edukitzeko. Garai horretan, errazionamendua zegoenez, dirua behar zen gauzak eduki ahal izateko. Beraiek nahiko ondo zeuden beste batzuekin konparatuz, errenta ordaindu behar ez zutelako. Errenta Errege egunean eta Santu Tomasen ordaintzen zen. Errenta, diruarekin ordaintzen zen eta aparte opariak egiten ziren.

30. Irakurtzen (ART-004/012)

Ez zen eskolara joan baina bai dotrinara. Dotrinara joan zenerako bazekien irakurtzen, beti gustukoa izan duelako. Irakurtzea ez zegoen ondo ikusita lan egin behar zelako eta ezkutuan egiten zuen.

31. Euskara (ART-004/014)

Txorierriko euskara, Arratzuko euskara eta batura nahasten ditu berba egiterakoan. Semeei "aite" esaten irakatsi beharrean, "aita" esaten irakatsi zien. Erdararik datozen hitzak ez zaizkio gustatzen eta Sondikan oso txarto egiten dela berba esaten du.

32. Bizikleta (ART-004/017)

Mutlen bizikleta aurrean jesarrita joatea bekatua zen. Berak bizikleta zeukan, baina domeketan mutilek erabiltzen zuten. Neskek lanera joateko bizikleta erabiltzen zuten, mutilek, ordea, erromerietara joateko. Mutil guztiek zeukaten bizikleta.

33. Guraso zorrotzak (ART-004/018)

Gurasoak oso zorrotzak ziren, batez ere aita. Behin berandu heldu ziren eta etxeko atea itxita aurkitu zuten, sartu ezinik. Etxeko aurreko aldean balkoi bat zegoen eta azpian harrizko mahai bat. Ahizpa nagusia mahaitik balkoira igo zen eta atea ireki zien.

34. Jaia bai, lana ere bai (ART-004/019)

Gernikako jaietan ordu biak arte uzten zieten, baina hurrengo egunean goizgoizean denak solora lanera joan behar ziren, artajorran. Artajorra eskuz egiten zen. Artoa ereiteko idiak erabiltzen ziren.

35. Koltxoiak (ART-004/020)

Artoa inguratzen duen azalak, kapatxa dauka izena eta ganaduak jan zezan erabiltzen zen, sabaian gordetzen zen lastoarekin batera. Koltxoiak egiteko kapatxa ere erabiltzen zen, bi koltxoi mota zeuden: artilezkoak (goian jartzen zirenak) eta kapatxazkoak (artilezkoen azpian jartzen zirenak). Koltxoiak garbitzeko oihala kentzen zen, artilea atera, korapiloak askatu eta eguzkitan jartzen ziren.

36. Arto-bizarrak erretzen (ART-004/021)

Kapatxarekin eta honen bizarrekin zigarroak egiten ziren. Berak bere nebarekin ezkutuan erretzen zuen. Erretzea bekatua zen.

37. Etxeko erremedioak (ART-004/024)

Erretzen zirenean olioak erabiltzen zen. Zaurietan oliba olioak jartzen zen, kala hosto batekin estali eta gero benda bat. Askotan bendak egiteko zapiak erabiltzen ziren. Hagineko mina kentzeko berakatza erabiltzen zen, baina ez zegoen mina kentzerik. Behin aitak izekori kordel batekin hagin bat atera zion. "Espiritu" izeneko alkohola asko erabiltzen zuten sendatzeko.

38. Hilekoa (ART-004/025)

Hileko mina kentzeko ez zegoen ezer, mina oso handia bazen coñac-a hartzen zen. Lehen hilekoa ezkutuan bizitzen zen, ez gaur egun bezala. Etxean egindako zapiak erabiltzen ziren ez zikintzeko eta gero ondo garbitzen ziren berriz erabiltzeko.

39. Permanentea eta tindagaiak (ART-004/031)

Pelukeria ikasitakoan permanentea zegoen modan eta plantxarekin ilea erre egiten zen. Bera ikasten hasi zenean likido batzuekin egiten zen. Hainbat moda egon ziren. Seme-alabak hazi zirenean, ile-apaindegia batean beharrean hasi zen ostiral eta larunbatetan. Bere garaian tindagaiak asko erabiltzen ziren, nahiz eta oso txarto gelditu. Tindagaia erabili baino lehen alergia proba egiten zuten besoan.

40. Euskarazko berbak, modu batera edo bestera (ART-004/032)

Arratzun granoari "bona" esaten zitzaion. Arratzuko euskara Markinako euskararen antzekoa zen. Arratzuko euskarari buruzko hausnarketa egiten du.

41. Txiroak laguntzen (ART-004/034)

Bere familiak txiroak laguntzen saiatzen zen. Berak beti ematen zuen dirua laguntzeko. Garai hartan, Arratzun ez zegoen beharrik eta behar izana handia zen. Sepulturetan dirua uzten zen eta herri guztietako elizetan egoten ziren. Bere garaian, Pazkoan, aitabitxik eta amabitxik mokotsak oparitzen zizkien besoetakoei.

42. Prozesioak (ART-004/035)

Pazkoa egun handia zen, Garizumak pasata baitzeuden. Garizuman ez ziren Gernikara joaten, ez zegoen musikaarik eta santuak izara batekin estaltzen ziren; prozesioak ere egiten ziren. Prozesioetan, San Juan errukiko Ama Birjina eta Jesu Kristo ateratzen ziren, kanposantura eroan eta berriro herrira itzultzen ziren. Oso denbora gutxian ohitura asko aldatu dira.

43. Erramu Eguna (ART-004/036)

Letaniak zelan abesten zituzten azaltzen digu eta apur bat kantatzen du. Erramu Egunean mezara oso dotore joaten ziren, gurutzeak bedeinkatzen ziren geroago soloan jartzeko.

44. Gabonetako kantak (ART-004/039)

Gauero kantatzen zuten etxean, baina berak ez du kantarik gogoratzen. Gabonetan asko kantatzen zen eta gabon kanta pare bat kantatzen ditu.

45. Eskola eta zigorrak (ART-005/002)

Eskolako atean Cara al Sol, eta "¡Viva España!" abestu behar izaten zuten, barruan, ostera, La Salve. Zapatuetan gustuko zuen zigortuta egotea, zapatuetan ere eskolara joan behar izaten zuten-eta. Zigortuta egonez gero jolasten gelditzen zen etxera joan barik eta horrela ez zuen joan-etorririk egin behar. Bere amamak zapaturo labeko sua egiten zuen, ogia.

46. Dotrina eta 3 pezetako paga (ART-005/003)

Abadeagaz jaso zuen dotrina. Mutilei txitximurka egiten zien eta galtzarpea markatuta izaten zuten. Domeketan 3 pezetako paga izaten zuten, eta Uherkako tabernara joaten ziren. Behin 3 pezeta gorde zituen eta oraindik han daude.

47. Plazara saltzera (ART-005/006)

Baserrian behar asko egiten zuten. Piper eta tomate asko zuten. 3 soro izan zituzten piperrez beteta. Amuma joaten zen plazara; gerora bera joan zen.

48. Gari-jotearen ostean Gernikara; ogerleko bateko paga (ART-005/007)

Uda partean gari-jote sasoia izaten zen. San Roketan, Gernikako jaietan, gari-jotearen ostean irteten ziren. San Roketxu egunez, abuztuaren 17an, gaueko ordu biak arteko baimena izaten zuten. Merkurio iturriaren ondoan hartzen zuten etxerako taxia. Paga ogerlekoa izaten zenean, 2,5 pezeta zineman gastatzen zuten eta beste erdia ogia eta pastela erosten.

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com